



## HERRIZAINGO SAILA

Herrizaingo Sailburuordetza  
Hauteskunde eta Dokumentazio  
Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Viceconsejería de Interior  
Dirección de Procesos Electorales  
y Documentación

## PRENSA OHARRA

### 13,00AK. PARTAIDETZA BALANTZEA ETA GERTAKARIAK

Eguerdiko hamabietan, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak emandako datuen arabera, hautesleen %17,14ak eman du botoa. 2005eko hauteskundeekin alderatuz, %0,97 igo da orain arteko boto emaile kopurua.

Prensa bulegoa

#### **Partaidetza eskualdeka**

Araban, eguerdiko hamabietarako, hautesleen %14,91k eman du botoa; 2005ean ordu berean baino %0,52 gehiagok. Bizkaian boto emaileak %2,14 igo dira aurreko hauteskundeekin konparatuz; guztira eguerdirako %16,51k bozkatu dute. Gipuzkoan %19,18koa izan da hautesle kopurua; 2005ean baino %0,76 gutxiago.

Iturria: Herrizaingo Saila

Bozketen ehunekoa 12etan. 2009-2005 desberdintasunak %tan

2009 2005

Euskadi 17,14 16,17 +0,97

Araba 14,91 14,39 +0,52

Bizkaia 16,51 14,37 +2,14

Gipuzkoa 19,18 19,94 -0,76

#### **Gertakariak**

EAE n jarri diren 2.735 hauteskunde mahaien egituraketa orokorrean normaltasunez egin da. Hala ere, horietako hirutan (bi Donostian eta bestea Gernikan) ordu erdi inguruko atzerapenez egituratu dira mahaiko partaideak garaiz aurkeztu ez direla eta. Bestalde, goizeko hamarrak izateko minutu eskas falta zirela, Ertzaintzak 13 pertsona identifikatu eta haien aurkako izapideak zabaldu ditu bozkatzera zihoazen unean Izaskun Bilbao, Patxi López eta Javier Madrazo hautagaiekin liskarra izateagatik. Eibarren ere beste hiru pertsonari Hondarribiako PSEko zinegotzi bati botoa ematea galarazi nahi izana leporatu diote.

Gainera, Donostiako hautesleku batean legez kanpoko alderdi baten aldeko boto-txartelak jarri izanagatik pertsona bat atzeman dute. Antzeko atxiloketa bat izan da baita Urnietan baina kasu

honetan, atxilotua hauteslekuaren kanpoaldean zegoen txartelak gainean zituela. Era berean, beste 23 pertsonaren aurkako izapideak ireki dituzte botoa normaltasunez ematea galarazi, legez kanpoko alderdi baten aldeko bereizgarriak eramateagatik edota alderdi horren boto-txartelak banatzeagatik.